

**JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA****3481**

AGINDUA, 2008ko maiatzaren 7koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuarena; honen bidez, Euskadin Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko jarduerak garatzen dituzten erakunde eta gizarte-mugimenduei laguntzak emateko deialdia egiten da.

Gizarte demokratiko orok honako betebeharrak hau du: herritarren giza eskubideak eta bakea ezagutu eta errespetatzeari buruzko kultura sakona sustatu eta bultzatzea.

Justizia, askatasuna, berdintasuna eta elkartasunaren oinarrien gainean eraiki nahi den gizarte- eta politika-antolamendu ororentzat giza eskubideak eta bakea ezinbesteko erreferente izan behar dira. Pertsona guztien giza duintasunaren balio gorena da abiapuntua, gizabanako bakoitzak gizartearen dituen eskubide eta betebeharrak iruteko abiapuntua, hain zuzen ere. Alde horretatik, ezin da zalantzan jarri pertsonaren gaitentasuna, eta gizarte- eta erakunde-arkitektura, azken batean, pertsonaren garapenera eta sustapenera bideratu behar dela.

Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala (1948) garrantzi handiko erreferentzia historikoa izan zen; izan ere, lehen aldiz izan zen instantzia unibertsal batek denei errespetatu behar zaizkien eskubideak aldarrikatu zituen, hartarako arrazoi bakarrik giza eskubideak izatea izanik. Deklarazio horren ondoren, tresna zehatzagoak sortu ziren, hala nola 1966ko Nazioarteko Itunak. Itun horiek, eskubide zibil eta politikoen gain, ekonomikoak, kulturalak eta sozialak ere bildu zituzten. Geroztik, berrazko hainbat hitzarmen agertu dira aldi berean (genozidioari, arraza-diskriminazioari eta emakumeen aurkako diskriminazioari, torturari, haurren eskubideei, sexu-eskubideei eta abarri buruzkoak). Horie esker, batetik, giza eskubideen babesaren eremu substantiboa zabaltzeko, eta, bestetik, eskubide horiek betetzea bermatzeko eta betetzera behartzeko mekanismoak hobetu eta zehaztu dira.

Baina, nazioarteko eremuan, eskubideen deklarazio horrekin eta eskubide horiek egiaz bermatu eta ezartzeko borroka amaigabearekin batera, ezinbestekoa da eskualdeko eta tokiko mailan lan egitea. Ildo horretatik, inoiz baino premia gehiago da gobernu guztiek bat egitea korrante unibertsal horrekin, Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioaren gidaritzapean, arlo horretan mundu osoko agintari gorena den aldetik.

Eusko Jaurlaritzaren programaren funtsezko eta oinarrizko lehentasuna da giza eskubideen eta bakearen kultura sustatzea, betiere multzo zatiezintzat, elkarren mendekotzat eta unibertsaltzat hartuta. Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Planean

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO
Y SEGURIDAD SOCIAL****3481**

ORDEN de 7 de mayo de 2008, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se convocan ayudas a Organizaciones y Movimientos Sociales que desarrollan actividades en favor de la Paz y los Derechos Humanos en Euskadi.

Toda sociedad democrática tiene el mandato de fomentar e impulsar en su ciudadanía una cultura profunda de conocimiento y respeto a los derechos humanos y a la paz.

Los derechos humanos y la paz constituyen una referencia imprescindible para cualquier modelo de organización social y política que aspire a construirse sobre la justicia, la libertad, la igualdad y la solidaridad. El valor superior de la dignidad humana de todas y cada una de las personas supone el punto de partida desde el que ir entrelazando el conjunto de derechos y obligaciones de cada individuo en sociedad, pero sin que quepa dejar espacio, en lo esencial, a que se ponga en tela de juicio la supremacía de la persona hacia cuyo desarrollo y promoción debe orientarse en definitiva la arquitectura social e institucional.

La Declaración Universal de los Derechos Humanos de 1948 supuso un hito histórico de la máxima importancia por cuanto, por primera vez, desde una instancia universal se proclaman los derechos que a todas las personas deben serles respetados por el mero hecho de pertenecer a la condición humana. A dicha Declaración Universal pronto habían de seguirle instrumentos más precisos como los Pactos Internacionales de 1966 centrados tanto en los derechos civiles y políticos como en los de índole económico, cultural y social. La proliferación simultánea de Convenciones específicas sobre el genocidio, la discriminación racial o contra las mujeres, la tortura, los derechos del niño, los derechos sexuales, etc., han ido ampliando tanto el ámbito sustantivo de protección de los derechos humanos como mejorando y precisando los mecanismos de garantía y coerción para su efectivo cumplimiento.

Pero junto a la declaración de derechos y a la lucha inacabada por su implementación y garantía efectiva en el ámbito internacional resulta imprescindible el trabajo a nivel regional y local. Resulta más urgente que nunca que, bajo el liderazgo del Alto Comisionado de Naciones Unidas para los Derechos Humanos en cuanto máxima autoridad mundial en la materia, todos los gobiernos se vayan sumando a esta corriente universal.

El programa de Gobierno Vasco incluye como prioridad esencial y básica el impulso de la cultura de los derechos humanos y la paz como bloque indivisible, universal e interdependiente. De manera especial el Plan Vasco de Educación para la Paz y los Derechos Humana-

(2008-2011) honako helburu hau ezarri da bereziki: euskal gizartean Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntza bultzatzea, dauden baliabideak optimizatuz eta sektore estrategikoen arteko beharrezko sinergiak sortuz, baita jardun-programa sistematikoa, koordinatua, etengabea eta iraunkorra sortzea ere, giza eskubideen eta bakearen kultura sustatzeko eta hedatzeko, kultura horri buruzko informazioa emateko eta kultura horretan trebatzeko.

Hori dela-eta, aurreko ekitaldietan bezalaxe, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak laguntza ekonomikoek deialdi bateratu bat egin du, Euskadin Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko jarduerak diruz laguntzeko asmoz.

Aurreko guztia kontuan izanda, honako hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.— Xedea.

1.— Agindu honen helburua da Eusko Jaurlaritzak, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren bitartez, 2008ko ekitaldian emango dituen laguntzak arautzea, betiere balio unibertsalen (hala nola, Bakea eta Giza Eskubideak) aldeko ekimen eta jardueren gaineko proiektu eta programak gauzatzeko laguntzak izanik.

Agindu honen xedetik at geratuko dira soilik sariak ematea beste helbururik ez duten jarduera, programa edo ekimenak.

2.— Programa eta jarduerak 2008. urtean burutuko dira.

3.— Agindu honetan aurreikusitako laguntzak lehia-keta-prozedura bidez emango dira, aurkeztutako eskaerak ebaluatuta, betiere 6. artikuluan zerrendatutako irizpideen arabera eskaera horien artean hurrenkera jakin bat ezartzearen, eta puntuazio handiena lortu dutenak soilik esleitu dira.

2. artikulua.— Zuzkidura ekonomikoa.

1.— Diru-laguntzen programa honetara bideratutako diru kopurua seihun eta hirurogeita bi mila hirurehun eta hogeita hiru (662.323,00) eurokoa da, Euskal Autonomia Erkidegoko 2008. urterako Aurrekontu Orokoretan aurreikusitako partidaren kargura.

2.— Diru-laguntzaren zenbatekoa finkatzeko, agindu honen 6. artikuluan ezarritako irizpideak erabiliko dira, eta aurkeztutako programa bakoitzean, onartutako aurrekontuaren % 100 ere ordaindu ahal izango da.

3.— Emandako diru-laguntzaren guztizko zenbatekotik, % 10 funtzionamenduko eta administrazioko gastuetarako izan daiteke, baina soldatak eta ordain-sariak alde batera utzita, betiere programa garatzeko ezinbestekoak ez badira eta Azalpen Memorian horrela jasota ez badago.

nos 2008-2011 se fija como objetivo impulsar la educación para la paz y los derechos humanos en la sociedad vasca, optimizando los recursos existentes, generando las sinergias necesarias entre los diferentes sectores estratégicos y desarrollando un programa de actuación sistemático, coordinado, permanente y sostenible para informar, capacitar, promover y difundir la cultura de paz y los derechos humanos.

Por ello, el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social impulsa, como en ejercicios precedentes, una convocatoria unitaria de ayudas económicas destinada a subvencionar actividades en favor de la Paz y los Derechos Humanos en Euskadi.

En su virtud,

DISPONGO:

Artículo 1.— Objeto.

1.— Es objeto de la presente Orden la regulación de las ayudas que el Gobierno Vasco, a través del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, otorgará durante el ejercicio 2008 para la realización de programas y proyectos de actividades e iniciativas en favor de valores universales como la Paz y los Derechos Humanos en el ámbito de nuestra Comunidad Autónoma.

Quedarán excluidos del objeto de la presente Orden aquellas actividades, programas o iniciativas que consistieren exclusivamente en la entrega de premios.

2.— Los programas y actividades se llevarán a cabo a lo largo del año 2008.

3.— Las ayudas contempladas en la presente Orden se otorgarán mediante el procedimiento de concurso, evaluando las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas, según los criterios relacionados en el artículo 6, y adjudicándose sólo aquellas que hubieren obtenido mayor puntuación.

Artículo 2.— Dotación económica.

1.— La dotación económica destinada a este Programa de subvenciones es de seiscientos sesenta y dos mil trescientos veintitrés euros (662.323,00) con cargo a la partida prevista en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el año 2008.

2.— La cuantía de la ayuda se fijará teniendo en cuenta los criterios establecidos en el artículo 6 de la presente Orden, pudiendo alcanzar hasta el 100% del presupuesto que resulte aprobado para cada programa presentado.

3.— Del importe total de la subvención concedida, el 10% podrá destinarse a gastos administrativos y de funcionamiento, excluidos sueldos y salarios, salvo que aquéllos fueren sustanciales para el desarrollo del programa y así constare en Memoria explicativa.

3. artikulua.– Eskatzaileak.

Honako pertsona juridiko hauek eska ditzakete Agindu honetan bildutako laguntzak: legez eraturako pertsona juridiko pribatu eta irabazi-asmorik gabekoak, baldin eta beren estatutuaren jasotakoaren arabera, haien helburuak Bakea eta Giza Eskubideak lortzea badira, eta helburu horiek lortzeko prozedurak baketsuak eta demokratikoak badira.

4. artikulua.– Eskakerak aurkeztea eta formalizatzea.

1.– Deialdi honetan parte hartzeko interesa duten erakundeek eskaera-orriak behar bezala beteta aurkeztu beharko dituzte, Agindu hau argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita hilabeteko epean, I. eranskin gisa dagoen eredu normalizatuaren arabera; eskaerak Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko Giza Eskubideen Zuzendaritzan aurkeztu beharko dituzte (Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz), nahiz pertsonalki nahiz Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako bideetako bat erabiliz. Lege hori urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez aldatu zen.

2.– Eskaera-orriarekin batera honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Eskaera-orria sinatu duen pertsonaren nortasun agiri nazionalaren, NANaren, fotokopia.

b) Ordezkaritza gisa eskatuz gero, ordezkaritza hori egiaztatzen duen agiria; edo entitatean agintea duen organoak egindako egiaztagiria, izenpetzaileak entitate horren izenean jarduteko daukan gaitasuna egiaztatzen.

Aurreko deialdietan diru-laguntza jaso bada, ez dira dokumentu horiek aurkeztu beharrik, baldin eta erabat indarrean badaude eta horien edukia aldatu ez bada; esanbidez adierazi behar da hori guztia.

c) Identifikazio fiskaleko kodearen fotokopia, baita Eratze Aktarena, Estatutuena eta dagokion Erregistroko inskripzioarena ere. Aurreko ekitaldiko deialdi berean diru-laguntza jaso bada, ez dira dokumentu horiek aurkeztu beharrik, baldin eta erabat indarrean badaude eta horien edukia aldatu ez bada; esanbidez adierazi behar da hori guztia.

d) Zerga-betebeharrak beteta dituela egiaztatzen duten egiaztagiri eguneratuak, gehienez, eskaera-data baino hiru hilabete aurretik emandakoak; bata Foru Ogasunarena, eta bestea, hala dagokionean, Gizarte Segurantzako Lurralde Diruzaintzarena, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrei buruzkoa. Nolanahi ere, diru-laguntza emateko, egiaztatzeko eta ordaintzeko fase guztietan gai horri buruz eskatzen zaizkion egiaztagiri guztiak aurkeztu beharko ditu onuradunak.

Artículo 3.– Solicitantes.

Podrán solicitar las ayudas objeto de la presente Orden las personas jurídicas de carácter privado y sin ánimo de lucro legalmente constituidas, cuyos objetivos, de acuerdo con lo previsto en sus estatutos sociales, fueren la consecución de la Paz y los Derechos Humanos, y que los procedimientos para alcanzarlas fueren exclusivamente pacíficos y democráticos.

Artículo 4.– Presentación y formalización de solicitudes.

1.– Las entidades interesadas en tomar parte en esta convocatoria deberán presentar las solicitudes debidamente cumplimentadas en el plazo de un mes, a contar desde el día siguiente al de la publicación de esta Orden, conforme al modelo normalizado que figura como anexo I, en la Dirección de Derechos Humanos del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco (c/ Donostia-San Sebastián, n.º 1, 01010 Vitoria-Gasteiz), bien personalmente o bien por cualquiera de los medios establecidos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

2.– Dicha solicitud se acompañará de la siguiente documentación:

a) Fotocopia del documento nacional de identidad –DNI– de la persona que firme la solicitud.

b) Documento acreditativo de la representación que se ostenta cuando se actúe con tal carácter o certificado del órgano competente de la entidad, que acredite la capacidad del/la firmante para obligarse en nombre de la misma.

En el supuesto de que se hubiere percibido subvención en las anteriores convocatorias, no será necesaria la aportación de estos documentos, siempre que se hallaren plenamente vigentes y no se hubiere modificado su contenido, haciendo declaración expresa al respecto.

c) Fotocopia del código de identificación fiscal y del acta de constitución, de los Estatutos y de la Inscripción en el Registro correspondiente. En el supuesto de que se hubiere percibido subvención en la misma convocatoria del ejercicio anterior, no será necesaria la aportación de estos documentos, siempre que se hallaren plenamente vigentes y no se hubiere modificado su contenido, haciendo declaración expresa al respecto.

d) Certificados actualizados, emitidos con no más de tres meses de antelación a la fecha de la solicitud, que acrediten, respectivamente, estar al corriente de sus obligaciones tributarias, expedidos por la Hacienda Foral correspondiente, y de cumplimiento, en su caso, de las obligaciones con la Seguridad Social, emitido por la Tesorería Territorial. No obstante, el/la beneficiario/a está obligado/a a presentar cuantas certificaciones sobre este extremo se le exijan durante todas las fases del procedimiento de concesión, justificación y liquidación de la subvención.

e) 2007ko diru-sarreraren eta gastuen laburpena, eta beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatutatik jasotako laguntzak esanbidez aipatu behar dira.

f) Proiektuaren memoria zehaztua; bertan honako hauek zehaztu beharko dira: helburua, metodologia, diru-laguntzaren hartzaile izan daitezkeenak, betiere sexuaren, lurralde-eremuaren eta egingo diren jardueren gauzatze-egutegiaren arabera banatuta; genero-ikuspegia nola hartuko den kontuan ere adierazi behar da. Memoria horretan, eskatzaileak Proiektuari dagokion eremuan duen esperientzia egiaztatu behar da.

g) Proiektu hori gauzatzeak eragingo duen kostuaren aurrekontua, partiden arabera banakaturik; bertan, proiektua finantzatzeko gainerako bideak, baleude, zehaztuko dira (II. eranskina), edo bestela, Proiektua finantzatzeko berezko nahiz kanpoko beste baliabiderik ez dagoela dioen zinpeko adierazpena.

h) Diruz laguntzeko eskatzen den jarduera berarako eskatutako beste edozein diru-laguntzaren zerrenda (II. eranskina), bertan bereziki aipatu beharko da zein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatutari eskatu zaizkien diru-laguntza horiek, baita eskaeren egoera ere (ukatu diren, ebatzteke dauden eta onartutako zenbatekoak). Horrelakorik egon ezean, zinpeko aitortpena aurkeztu beharko da, honako hau zehaztuz: diru-laguntza jasotzeko aurkeztutako programetarako ez duela beste inongo laguntzarik eskatu.

i) Proiektua gauzatzeko erakunde eskatzaileak dituen baliabide materialak eta giza baliabideak adierazi beharko dira; horretaz gain, honako hauek ere adierazi beharko dira: alde batetik, erakundeak ba ote duen berdintasunaren alorrean trebatuta dauden edota ibilbidea duten pertsonarik; eta, beste alde batetik, boluntario gisa jarduten duten pertsonen kopurua. Inolako ordainsaririk gabe Proiektuan lagundu dutenak hartzen dira boluntariotzat.

j) Agindu honen III. eranskinean azaltzen den dokumentuaren bi ale original, dagokion banku-erakundeak eta eskatzaileak behar bezala zigilatutak eta sinatutak.

k) I. eranskinean agertzen den arduradunaren adierazpena, entitate eskatzailea diru-laguntza eta laguntza publikoak jasotzeko debekuren baten pean ez dagoela adierazten duena (otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak onartutako Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.5 artikuluan jasotakoaren ondorioz).

3.- Era berean, programa edo jarduera hobeto balioesteko eskatzaileek egokitzen jotzen duten beste edozein dokumentazio osagarri ere aurkeztu ahal izango da.

4.- Jarduerak gauzatu baldin badaude, egindako gastuak justifikatzeko behar diren dokumentu guztiak aurkeztu beharko dira, Agindu honetan eskatzen den moduan.

e) Resumen de ingresos y gastos correspondientes al año 2007, haciendo expresa mención de las ayudas recibidas de otras administraciones o entes públicos o privados.

f) Memoria detallada del Proyecto, especificando el objeto, metodología, potenciales destinatarios haciendo la desagregación por sexos, ámbito territorial y calendario de realización de las actividades a desarrollar, así como también el modo en que se prevé incorporar la perspectiva de género. En esta Memoria se acreditará la experiencia de la persona solicitante en el ámbito a que se refiera el Proyecto.

g) Presupuesto, desglosado por partidas, del coste que la ejecución de tal Proyecto conlleve, haciendo constar los demás medios de financiación del mismo, si los hubiere (anexo II), o declaración jurada de que no disponen de otros medios propios ni ajenos para financiar el Proyecto.

h) Relación de cualesquiera otras ayudas solicitadas con destino a la actividad para la que se solicitare la subvención (anexo II), en la cual habrá de hacerse referencia a las administraciones o entes públicos o privados a los que se hubiere solicitado, así como el estado de las mismas (denegadas, pendientes de resolución, concedidas e importes). En caso contrario, declaración jurada de no haber solicitado ninguna otra ayuda para los programas presentados a subvención.

i) Indicación de los recursos materiales y humanos con los que cuente la entidad solicitante para llevar a cabo el Proyecto, indicando si la entidad cuenta con personas con formación y/o trayectoria en materia de igualdad y haciendo constar el número de personas que actúan como voluntarias, entendiéndose como tales aquéllas que colaboran en el Proyecto sin percibir remuneración alguna.

j) Dos originales del documento que figura como anexo III de esta Orden, debidamente sellados y firmados por la entidad bancaria correspondiente y por la persona solicitante.

k) Declaración responsable, que figura en el anexo I, de que la entidad solicitante no se halla incurso en ningún supuesto que le vede el acceso a subvenciones y/o ayudas públicas, comprendidos en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, y artículo 50.5 del Texto Refundido de la Ley de Principios ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre.

3.- Asimismo, podrá presentarse cualquier otra documentación complementaria que los/as solicitantes estimaren pertinente para la mejor valoración del programa o actividad.

4.- En el caso de actividades ya realizadas, deberá aportarse toda la documentación dirigida a justificar los gastos efectuados, en la forma exigida por la presente Orden.

5.– Espedientea behar bezala osatzeko egokitzat hartzen dituen dokumentuak eta azalpenak eska diezazkioke Giza Baliabideetako Zuzendaritzak eskatzaileari. Gainera, eskatzaileak emandako datuak ere egiaztatu ahal izango ditu.

5. artikulua.– Eskaeran egindako akatsak zuzentzea.

Eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, osatu gabea dagoela edo daturen bat falta dela iritzi badio Giza Eskubideen Zuzendaritzak, gehienez ere 10 eguneko epea emango die eskatzailei atzemandako akatsak zuzentzeko; horretaz gain, adieraziko zaie eskatutakoa betetzen ez bada eskaera atzera egintzat hartuko dela, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikuluan ezarritakorekin bat etorritz. Lege hori urtarilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez aldatu zen.

6. artikulua.– Eskaerak hautatzea.

1.– Laguntzak emateko proposamena Epaimahai batek egingo du; honako hauek izango dira epaimahai-kide:

Lehendakaria:

– Giza Eskubideen zuzendaria edo hark izendatutakoa; kalitatezko botoa izango du.

Mahaikideak:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko presidentea edo hark izendatzen duena.

– Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeko presidentea edo hark izendatzen duena.

– Kultura Saileko Gazteria eta Gizarte Ekintza zuzendaria edo hark izendatzen duena.

– Terrorismoaren Biktimei laguntzeko zuzendaria edo hark izendatzen duena.

– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Berritzatzeko zuzendaria edo hark izendatzen duena.

– Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundearen idazkari nagusia edo hark izendatzen duena.

Idazkari-lanetan Giza Eskubideen Zuzendaritzako teknikari bat arituko da; Giza Eskubideen zuzendariak izendatuko du.

2.– Diru-laguntzak emateko eta horien zenbatekoa ezartzeko, baldintza horiek betetzen diren aztertuko da, eskaeraren datuen arabera eta kasu bakoitzean zehaztu den puntuazio-eskala kontuan hartuta:

1) Erakunde eskatzaileari dagokionez: Erakundearen potentziala eta kaudimena, betiere proposatutako jardura edo programa garatuko den eremuan, eskatzaileak aurkeztutako proiektua arrakastaz burutzeko gaitasunik ba ote duen erabakitzeko. Horretarako, besteak beste, honako irizpide hauek hartuko dira aintzat: erakunde-

5.– La Dirección de Derechos Humanos podrá recabar del/la solicitante cuantos documentos y aclaraciones considerare necesarios para completar el expediente, así como efectuar las comprobaciones oportunas de los datos aportados por el/la mismo/a.

Artículo 5.– Subsanación de defectos de la solicitud.

Si, a la vista de la documentación presentada por los/as solicitantes, la Dirección de Derechos Humanos comprobare que la misma es incompleta o que careciere de algún dato, concederá a aquéllos/as un plazo máximo de 10 días para la subsanación de los defectos detectados, con la indicación de que, si así no lo hicieren, se les tendrá por desistidos/as de su petición, de conformidad con lo previsto en el artículo 71 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

Artículo 6.– Selección de solicitudes.

1.– La propuesta de concesión de ayudas se realizará por un Tribunal, integrado por las personas que a continuación se relacionan:

Presidente:

– Director de Derechos Humanos, quien ostentará voto de calidad, o persona en quien delegare.

Vocales:

– Presidente del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco o persona en quien delegare.

– Presidente de la Comisión de Derechos Humanos del Parlamento Vasco o persona en quien delegare.

– Director de Juventud y Acción Comunitaria del Departamento de Cultura o persona en quien delegare.

– Directora de Atención a las Víctimas del Terrorismo o persona en quien delegare.

– Director de Innovación Educativa del Departamento de Educación, Universidades e Investigación o persona en quien delegare.

– Secretaria General de Emakunde- Emakumearen Euskal Erakundea Instituto Vasco de la Mujer, o persona en quien delegare.

Actuará como secretaria, una técnico de la Dirección de Derechos Humanos, designada por el Ilmo. Sr. Director de Derechos Humanos.

2.– Para la concesión de las subvenciones y la fijación de su cuantía, se valorará la concurrencia de estas condiciones, según datos de la solicitud y a tenor de la escala de puntuación que se especifica en cada caso:

1) En la entidad solicitante: El potencial y solvencia de la entidad en el ámbito en el que se vaya a desarrollar la actividad o programa propuesto con el fin de determinar la capacidad de la persona solicitante para acometer con éxito el proyecto presentado. Para ello, entre otros criterios, se tendrá en cuenta la trayectoria

aren ibilbidea, egonkortasuna eta iraupena, eta dagokionean, aurreko ekitaldian burututako proiektuei buruzko ebaluazioak: 0-5 puntu.

2) Proposatutako programa edo jarduerari dagokionez:

a) Garatu beharreko programa edo jarduerak aurreikusia dagoen arloan duen originaltasuna eta potentzial estrategikoa, baita gizarteari begira eskaintzen dituen aukerak edo interesa ere. Proiektua balioesteko, honako hauek ere kontuan hartuko dira, hala badagokio: proiektua egokia ote den 2008-2011 aldiko bakearen eta giza eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Planaren esparruan garatuko diren helburuak, ildo estrategikoko eta ekintzak bultzatzeko eta sustatzeko. 0-10 puntu.

b) Proposatutako programa edo jarduera zein lurralde-eremuan gauzatuko den eta zenbat jenderengana iritsiko den, baita bakearen kulturak eta giza eskubideen defentsa eta sustapenak orain arte eraginik izan ez duten gizarte-eremuetan eragiteko gaitasuna ere; horretaz gain, generoaren ikuspegia ere balioetsiko da, betiere Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen 20.2 artikulua eta Bakean eta Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzako Euskal Planaren arabera: 0-10 puntu.

c) Proiektuaren jarraipenerako borondatea eta egiturazko esku-hartzearen potentziala, egoeraren arabera esku-hartzearen gainetik: 0-5 puntu.

d) Erakundearen lankidetzeta-maila eta baterako parte-hartzearen maila, giza eskubideen eta bake-kulturaren eragile-sarearekin, oro har, proposatzen diren jardueren dagokienez: 0-5 puntu.

e) Finantziazio-iturriak: 0-5 puntu.

f) Giza Eskubideen nazioarteko erakundeek eta, bereziki, Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioaren Bulegoak bultzatutako esku-hartze ildo, estrategia eta helburuekiko koherentzia-maila eta horiek zenbateraino hartzen dien kontuan. 0-5 puntu.

3.- Diru-laguntza esleitzeko, eskaerak gutxienez 20 puntu lortu beharko ditu, aurreko baremoen arabera.

4.- Aukeratutako proiektu bakoitzari dagokien laguntzaren zenbatekoa ezartzeko banaketa proporzionalaren sistema aplikatuko da, eta sistema horren arabera, artikulua honetako 2. puntuan ezarritako irizpideak aplikatzearen ondorioz, 2. artikuluan ezarritako zuzkidura ekonomiko globala balioespen-fasean lortutako puntuazioaren arabera banatuko da.

5.- Diru-laguntzak ematea eta ordaintzea baldintzatuta geratuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek ematen dituen izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan dirua itzultzeko edo zehapenen bat ezartzeko espediente hasi baldin bada, eta oraindik izapideak amaitu gabe baldin badaude, prozedura hori burutu arte.

de la entidad, su estabilidad y permanencia en el tiempo y, en su caso, las evaluaciones realizadas sobre proyectos acometidos en ejercicios anteriores: de 0 a 5 puntos.

2) En el programa o actividad propuesta:

a) La originalidad y potencial estratégico del programa o actividad a desarrollar en el área en que la misma esté prevista, y su oportunidad o interés social. Para valorar este último se tendrá en cuenta también, en su caso, su idoneidad para facilitar e impulsar los objetivos, líneas estratégicas y acciones a desarrollar en el marco del Plan Vasco de Educación para la paz y los derechos humanos 2008-2011: de 0 a 10 puntos.

b) El ámbito territorial y número de personas sobre las que se proyectará el programa o actividad propuesta y su capacidad para incidir en ámbitos sociales a los que hasta ahora no había llegado la cultura de paz y de defensa y promoción de los derechos humanos, también se valorará la perspectiva de género, de acuerdo con el artículo 20.2 de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y al Plan Vasco de Educación para la Paz y los Derechos Humanos: de 0 a 10 puntos.

c) La voluntad de continuidad del proyecto y su potencial de intervención estructural antes que meramente coyuntural del Proyecto: de 0 a 5 puntos.

d) El grado de colaboración y de coparticipación de la entidad en las actividades que se proponen con el conjunto de la red de agentes de derechos humanos y cultura de paz: de 0 a 5 puntos.

e) Fuentes de financiación: de 0 a 5 puntos.

f) Grado de coherencia con -y toma en consideración de- las líneas de intervención, estrategias y objetivos de los organismos internacionales de Derechos Humanos y, especialmente, de la Oficina de la Alta Comisionada de las Naciones Unidas para los Derechos Humanos: de 0 a 5 puntos.

3.- La adjudicación de la subvención requerirá que, de acuerdo con los baremos anteriores, la solicitud supere la puntuación mínima de 20 puntos.

4.- Para la determinación del importe de la ayuda que correspondiere a cada uno de los proyectos seleccionados se aplicará un sistema de reparto proporcional, en virtud del cual la dotación económica global establecida en el artículo 2 se distribuirá en proporción a la respectiva puntuación que, en aplicación de los criterios determinados en el punto 2 de este artículo, hubieren obtenido en la fase de valoración.

5.- La concesión y abono de las subvenciones quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que se hubiere iniciado con motivo de otras ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y que se hallare todavía en tramitación.

7. artikulua.– Kudeaketa, ebazpena, errekursoak, ebazteko epea eta publizitate-prozedura.

1.– Giza Eskubideetako Zuzendaritzari dagokio deialdi honen kudeaketa-lanak egitea.

2.– Giza Eskubideen zuzendariak berariaz emandako ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira Agindu honetan aurreikusitako diru-laguntzak, betiere Kalifikazio Epaimahaiak egindako proposamena aztertu ostean. Ebazpen horrek administrazioarekiko bidea agortzen ez duenez gero, interesdunek Gora Jotzeko Errekurtsoa aurkez diezaiokete justizia-sailburuordeari, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, betiere azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

3.– Agindu honen babesean aurkeztutako eskaerak ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea lau hilabetekoa izango da, Agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori igarotakoan ez bada esanbidezko erabakirik eman, eskaerak ezetsizat hartu ahal izango dira, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako; hala ere, Administrazioak esanbidezko ebazpena eman behar du.

4.– Publizitate-printzipioa betetzeko, eta prozeduraren ebazpena esanbidez eta banan-banan jakinaraztea alde batera utzi gabe, Giza Eskubideen zuzendariaren ebazpen bidez Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian honako hauek argitaratuko dira: alde batetik, xedapen honen babespean emandako diru-laguntzen onuradun diren erakunde eta gizarte-mugimenduen zerrenda, zenbateko diru-laguntza jaso duten zehaztuta; eta bestetik, emandako diru-laguntzan aldaketaren bat izan duten erakundeen zerrenda.

8. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

1.– Erakunde onuradunek diru-laguntza onartzen badute, Agindu honetan ezarritako arau guztiak onartzen dituztela esan nahiko du, baita abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako bermeen eta itzultze-eta zehapen-erregimenarena ere, edo Dekretu hori ordeztzen duen beste edozein arau; EAeko Herriogasuntza Nagusiaren antolaraueri buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuan ezarritakoak ere onartu beharko dira.

2.– Diru-laguntza onartu dela ulertuko da laguntzak esleitzeko Ebazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita 15 eguneko epean erakunde onuradunak kontrarik adierazten ez badu.

3.– Erakunde onuradunek honako betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Laguntza eman duen Administrazioaren aurrean honako hauek justifikatzea: diru-laguntza emateko betekizun eta baldintzak betetzen direla, diruz lagundutako proiektua burutu dela, eta hori betetzea –guztiz edo

Artículo 7.– Gestión, resolución, recursos, plazo para resolver y procedimiento de publicidad.

1.– Corresponderá a la Dirección de Derechos Humanos la realización de las tareas de gestión de la presente convocatoria.

